



Gauz harrizko zubiaren azpian

Leo Perutz

Liburu hau, literatura unibertsalak bakan eman ohi dituen katedral horietako bat da. Plater bat, sakramentu guztiekin. *Chapeau*. Ba al dakizue liburua amaitu orduko zer egin dudan? Liburua hasieratik bertatik irakurtzen hasi berriro.

Lehen atala irakurri nuenean, zera pentsatu nuen: "Hau irakurketa zaila izango da". Zergatik? Liburua nahiko dokumentaturik dagoelako, eta gure ohiko kultura ingurunetik nahiko urruntzen diren aipamenak, gertaerak, toponimia eta izendegiak agertzen direlako. Hala ere, lehen atalak hasiera eta bukaera garbiak zituen, hau da, ipuin baten itxura osoa zeukan. Hori dela eta, erne jarri nintzen, suposatzen baitzen nobela bat zela, eta ez kontakizun-multzo bat.

Ziurgabetasun horrekin heldu nion bigarren atala irakurtzeari. Dena dela, utz dezagun argi eta garbi: lehen atala, kontakizun modura, liluragarria iruditu zitzaidan. Eta bigarren atala irakurri nuenean, orduan zalantzan hasi nintzen benetan ba ote nengoen eleberri baten aurrean. Eta sinopsia irakurri nuen berriro, badaezpada ere, nahastu ote nintzen... Baina ez, eleberri bati buruz mintzatzeko zen. Interneten ere horrelaxe definitzen zen.

Kontua da bigarren atala ere liluragarria iruditu zitzaidala. Beraz, horra iritsita, erabaki bat hartu nuen: "Kontakizun-multzo bat izango balitz bezala irakurriko dut. Ondo pasatzen badut, primeran. Eta azkenean lortzen badut ulertzea zergatik den eleberri bat, hainbat hobe niretzat".

Eta hurrengo atalera igaro nintzen... Eta liburuan sartu ahala, pertsonaia guztiak eta bertan kontaktzen diren gertaera guztiak armiarma bitxi eta liluragarri bat nola zihoazen ehunduz ohartzen nintzen, zeinetan pertsonaiak eta egitate bakoitza zoragarriro endredaturik eta gatibaturik gelditzen baitziren. Ez nuke esango puzzle baten antzekoa denik, puzzle bat matematikoegi eta perfektuegia baita, erraz iragartzeko modukoa, eta hasieratik diseinatua hori bakarrik izateko: puzzle bat.

Liburu hau, ordea, bizitza propioa izango balu bezala da. Ez doa hasiera batetik bukaera batera, eleberri ia guztietan gertatu ohi den moduan. Aitzitik, badirudi liburuaren bukaerak hasierara eramaten gaituela, edo Kontaeraren (letra larriz) beste edozein momentutara.

Liburuaren zenbait atal funtsezkoak dira kontakizunaren geroko garapenean. Hori bera gertatzen da, esaterako, 7. atalarekin, "Thaler ebatsia" izenekoarekin, non kontaktzen baita Mordechai Meislen istorioaren hasiera. Baina une horretan irakurlea oraindik ez da ohardun pertsona horrek eta bertan kontaktzen diren —giza naturaz gaindiko— egitateek izango duten garrantziaz. Horrek liburuari izaera magiko, aparta eta labirintikoa ematen dio, kontakizunari dagokionez. Erlojugile baten zehaztasunarekin ehundutako armiarma-sare bat da, baina... aldi berean, gertaeren bilakaera

gobernatzen duen borondate apetatsuz ezin ahaztu; izan ere, gertaera guztiak baitaude aurretik erabakitako patu baten esku, hasi eta buka.

Zazpigarren kontakizunean, “Gauetz harrizko zubiaren azpian” izenekoan, barru-barruraino sartu zaidan esaldi bat dago, honako hau: “Ez da irribarre egin eta barkatzen duen Jainko bat”. Ea zergatik egin didan horrelako zirrara? Beharbada, mistika judua ez ezik, mistika ia guztiak ezin hobeto laburbiltzen dituelako...? Hala ere, zergatik iruditzen zait garrantzitsuagoa aurreko atala (zazpigarren kontakizuna) honako hau baino, liburuari izena ematen dion kontakizuna izanik? Beharbada, oraindik ulertu ezin dudan zerbaitengatik izan daiteke... Esan nahi dut atal hau hobeto ulertzen dela liburuaren bukaera aldean, horri buruzko zehaztasun gehiago agertzen direnean. Hala ere, atal honek funtsezko lotura bat du aurrenekoarekin, alegia “Izurri beltza auzo juduan” delakoarekin. Poetikoa da. Erromantikoa. Eta finean, maila sozialak gainditzen dituen gauza bakanetako bat jartzen digu aurrean: maitasuna (antzinatik datorren gorroto sakon eta galgarriari —juduen eta kristauen arteko ezinikusi historikoari— amaiera eman nahian edo). Hala ere, ametsa da, ez besterik...

Zortzigarren kontakizunean (“Wallensteinen izarra”) oso nabaria da kontakizunaren “kaos” kosmikoa, hau da, kosmosean dagoen kaosa itxurazkoa den bezala, liburuan dagoen kaosa ere halakoxea da; edota hitz hutsalagoekin adierazita: liburu atzetik aurrera idatzita balego bezalako sentsazioa bizi-bizia da atal honetan (nahiz eta horretarako liburu osoaren gaineko ikuspegia eduki behar). Kontakizun hau liburuaren luzeenetako bat da (“Alkimista ahantzia” kontakizunarekin batera). Zergatik? Auskalo. Ziur aski, egileari horrela atera zitzaiolako (beti egon behar al du arrazoi bat margolan baten pintzelkada bakoitzaren atzean...? Edo, beste modu batez galdetuko dut: beti egon behar al du arrazoi kontziente bat margolan baten pintzelkada bakoitzaren atzean...?)

Bederatzigarren atalaren amaieran dago beste esaldi eder bat, sekulako zirrara eragiten duena. Margolan bat deskribatzen du, honela: “[...] bertan gizon bat ageri duk portuko taberna batean eserita, agian margolaria bera, eta atso zantar bi inguruan bultzaka, gizona besarkatu guran; nire ustez, bata izurria duk; bestea, hil-oihala bezain hitsa, ahanztura”. Zaila da hainbeste esatea, hain esaldi gutxirekin, ezta?

Pertsonaiak etorri bezala badoaz. Batzuk ezagunak dira irakurlearentzat, beste batzuk haragizko bihurtu berriak dira eta oraindik ez dago jakiterik nolako lekua beteko duten gertaeren bilakaeran eta kontakizunaren garapen globalean. Aipamen huts diren pertsonaiak ere hor daude. Dena den, zenbaitetan, pertsonaia batzuen aipamena egitea nahikoa izan daiteke sortu beharreko loturak sortzeko, eta, kontakizun bat eleberrizat jo ahal izateko. Nahiz eta, agian, hori ere izan daitekeen liburu eder honen, artelan bikain honen ahulgunea... Izan ere, liburu honi benetako debozioa eduki arren, ezin diot halako "deskonexio global" bat sentitzeari utzi, batez ere eleberri batez espero daitekeenaren ikuspuntutik. Edo, akaso, Leo Perutzek ez du literatura osoan denbora luzez erabili izan diren loturak sortzeko premiarik izan...? Akaso, modu berri batez planteatu nahi zuen dena... ipuin multzo batean bezala... ipuin bakoitza gertaera-multzo burutu bat izango balitz bezala...? Agian, horrela eman nahi al zuen aditzera zeinen gorabeheratsua izan daitekeen gizakion bizitza, eta gure proiektuak edozein unetan etenda gera daitezkeela, ustekabean eta behin betiko...? Egia esan, aipatzen

dudan deskonexio-sentsazioak zerikusia ere izan lezake liburuaren gibel-solasean egiten den aipamen batekin: “Izan zuen sortze-aldi luzearen markak geratu zitzaizkion istorioari”. Bai, litekeena da horrekin ere zerikusia izatea.

12. atalean (“Enperadorearen zerbitzari leialak”), denboran jauzi kuantitatibo garrantzitsu bat gertatzen da. Bohemia suntsitua izan da, garaileak garaituen ordeztu hasiak dira erresuman kokatzen, gerrak aurrera jarraitzen du, exekuzioak daude, enperadorea zendu da, gauza asko argitzen dira esaldi laburretan (esaterako, Philipp Langen amaiera, “mundu hau urka-bilurrez eta ezkutuan utzi baino lehen”). Jauregiko zerbitzari ohien ahotan gelditzen da kontakizuna. Bohemia suntsitu hartaz jauregiko zerbitzariak baino ez dira gelditu, bizimodu berri batera emanak denak. Herriak hartzen du protagonismoa. Herriak bizirik dirau.

Leo Perutzek izen-abizenak ematen dizkie bere pertsonaiei, baita behin bakarrik agertzen diren garrantzirik gabeko pertsonaiei ere. Alde horretatik, nik esango nuke Leo Perutz idazle “herrikoia” dela. Pertsona bakoitza “sakratua” balitz bezala jokatu du, judaismoaren mistika ere tartean sartzen dela esango nuke... Pertsonaia juduekin egiten du gehienbat... Edo, beharbada, bere jendearekiko errespetuz eta maitasunez egiten du... “Izen-abizenak zituzten, mende luzeetako bazterkeria eta genozidioa pairatutako judu guztiek”. Biktima bakoitzari aurpegia jarri nahi balio bezala edo.

Boteretsuei dien nazka, eta haiez mendekatzeko gogo. Nola? Haiek dirurik gabe utzita. Zapalduen (juduen) kendu nahi zieten dirua aurretik ezabaturik.

Gertaerak, XVI. eta XVII. mendean kokatuta egon arren, deskribapen historiko batzuetan oraindik ere nabaria da Goi Erdi Aroaren eragina, artean ere ez baitzen hain urruna, horrek zekarren guztiarekin: fanatismo erlijiosoak, superstizioak, gizarte zurruna eta tradizionala, gizarte-antolaketa piramidala, herria miseria gorrian bizitzen, despotismoa, anbizioengatik gerrak...

Praga, Austria, Hungaria, Bavaria, Bohemia... Eleberriaren eremu geografikoa hori da.

Liburuaren azalean katedral bat agertzen da ilunantzean. Liburuaren azala diseinatu duenak ezin zezakeen irudi batekin hobeto deskribatu liburu hau zer den: katedral bat denboraren ilunpeetan murgilduta, ordurako den-dena izan baita suntsitua: pertsonak, kulturak, boteretsuak eta pertsona xumeak, eraikinak, auzoak, herriak, erresumak... harik eta katedrala bakarrik gelditzen den arte, ilunpeetan murgilduriko katedral bat (katedrala diseinatu eta eraiki zutenek, katedrala gurtu eta gorrotatu zutenek —bai eta katedrala suntsitu zutenek ere— sentitu zuten guztia helarazten digun katedral bat).

Agian, ilunpeetan murgilduriko katedral horrekin kontrajarrita, Estherren eta Rudolf II.aren arteko maitasun-istorio debekatua dago, errabino handiari esker dimentsio magiko bat hartzen duena; izan ere, Loew errabinoak herri juduaren sarraskia eragozteko lortzen baitu, Estherren heriotza obratzen badu ere, auzo juduko haurrak salbatzeko (1. atala eta azken bi atalak maisuki lotuta utziz).

Egia esan, irakurleak ezin dio susmatzeari, barruntatzeari utzi liburuan zehar badagoela halako paralelismo bat eleberriaren eta herri juduak jasandako gertaera

tragikoen artean, eta bereziki, herri juduak eta nobelaren egileak berak bigarren mundu-gerran jasandako esperientzia tragikoen artean. Gertaera horiek kontakizuna baldintzatu, zeharkatu egiten dutela uste dut, eta, nola edo hala, esango nuke presente daudela liburu osoan zehar.

Liburuaren azken atalean, "Epilogo" izenekoan, egileak, bere kontalari prekarioen bidez (Ikasle Gaztearen eta Jakob Meislen bidez) azken azalpen bat ematen digu lekuko izan garen gertaera guztiei buruz. Horretarako, "Mordechai Meislen testamentuaz" baliatzen da. Hemen nostalgia da nagusi, gauza guztiak suntsitzen dituen denboraren bilakaera da nagusi. Eta kontatzen zaigu zer gertatu zen Mordechai Meislen fortunarekin eta ondasun irrikatuekin, zeinak, auzo juduaren ondare izaten amaituko baitira, bere jendearen —Leo Perutzek maite zuen jendearen— ondare, alegia.

Beste alde batetik, Txilikuren eta Berasategiren itzulpena eleberriaren mailan dago, edertasuna eta profesionaltasuna helarazten ditu bai euskal senaren ikuspegitik bai ikuspegi formalaren aldetik. Elementu hauek guztiak —liburu on bat eta itzulpen on bat— batuz gero, zer atera daiteke hortik, produktu jenial bat baizik?

20 euro ordaintzea benetan merezi duten liburu horietako bat da hau. Eta gero, irakurri duzunean, zure urrezko liburutegi pertsonalean gorde eta, egunen batean, agian, berriro heldu eta berriro hasiko zara "Gauetz harrizko zubiaren azpian" irakurtzen, lehen ataletik hasita edo... atal bat ausaz aukeratuz... horrek berdin dio eta. Liburu batzuk denboraz harago daude, eta hau... horietako bat da.

Beste ideia batzuk: elementu historikoak; XVI. mendea; Praga, Bohemia; garai hartako giroa, oso ongi dokumentatua; juduen kulturaren gaineko ezagutza sakona; judu erlijioaren mistika; erlijioaren eta magiaren arteko lotura; herri juduari jazartzen dion patu petrala (bazterkeria, miseria, destaina eta mespretxua...); judaismoa, kristautasuna, protestanteak, korronte utrakista, islama; erlijioen arteko talkak; gizartea, oro har, pobrezia gorrian bizitzen; juduek pairatutako giza bazterketa; boteretsuen egoismoa, diruzalekeria eta megalomania; erregeen arteko anbizioak eta gerrak, garai hartan ugari-ugariak Europan //

Pertsonaiak

1. Izurri beltza auzo juduan

Koppel-Bar eta Jäckele-Narr txerpolariak // Loew errabino handia

2.- Enperadorearen Mahaia

Peter Zaruba & Georg Kaplir (ahaideak) // Jakob Meisl (medikuntza-ikaslea eta irakasle pribatua) // Enperadorea eta Philip Lang ere agertzen dira, baina aipamen gisa bakarrik.

3.- Txakurren elkarrizketa

Berl Landfather gizagaixoa // Bi txakur (horietako bat Mordechai Meislena izandakoa)

4.- Sarabanda

Juranic baroia // Kollarto konde gaztea // Loew errabino handia // Jakob Meisl

5.- Henrike infernutik etorria

Rudolf II.a (Bohemiako Errege) // Esther judu ederra (erregearen “maitalea”) // Meisl judu aberatsa // Philipp Lang (erregearen gelazain pertsonala) // Cervenka (erregearen gelaria) //

Sternberg kondea, Bubna konde gaztea (Erregearen zerbitzariak) // Hanniwald (Erregearen idazkari pertsonala) // Zdenek von Lobkowitz (kantziler bohemiarra) // Henrike Twaroch (erregearen zalditegiko behargin kartzelatik ihes eginga eta Marokoko enbaxadore bihurtua)

6.- Thaler ebatsia

Rudolf II.a (Maximiliano II.aren seme gaztea) // Mordechai Meisl

7.- Gaez harrizko zubiaren azpian

Arrosa gorria eta Erromeroa (Esther eta Rudolf II.a, hurrenez hurren).

8.- Wallenstein izarra

Johannes Keppler (matematikari eta astronomo handia) // 1606. urtea, Praga, enperadorea //

Hanniwald (enperadorearen idazkari pertsonala) // Philipp Lang (enperadorearen gelari nagusia) // Albrecht Wenzel Eusebius von Waldstein // Bartivius (lapur-banda baten burua) // Georg Leitnizer (lapurra) // Lukrezia von Landeck (alarguna) // Jakob Meisl eta bere ikaslea (hirugarren pertsonan narratzaile gisa noizetik noizera agertzen dena) //

9. Brabanzio margolaria

Brabanzio (= Vojtech edo Albert Brabeneč) // Rudolf II.a enperadorea // Cervenka gelaria // Jostuna (Brabanzioaren anaia) // Mordechai Meisl // Esther (jada hila, aipamen huts) // Loew errabino (aipamen huts) // Jakob Meisl eta bere ikaslea (nobelaren hari eroalea neurri batean —neurri batean soilik— daramatenak).

10. Alkimista ahantzia

Mordechai Meisl // Philipp Lang (enperadorearen gelari nagusia) // Anaia Matias (Rudolf II.a enperadorearen anaia eta etsaia, beste atal batzuetan ere aipatua, mehatxu gisa beti) // Jakobus van Delle (alkimista) // Anton Brouza (Maximiliano enperadorearen bufoia eta Rudolf II.aren sugina) // Colloredo kondea (erregearen koparia)

11. Aguardient-ontzia

Jäkele-Narr eta Koppel-Bär // Mordechail Meisl (aipamen huts) //

12. Enperadorearen zerbitzari leialak

Anton Brouza (bufoia eta sugin ohia) // Jauregiko zerbitzari ohiak (Cervenka gelaria, Svat bizargina, Votruba uhalgilea, Wondra sukalde-mutila, Kasperek laute-jolea, Gerog Jarosch sarrailagilea) // Jessenius doktorea (aipamen huts), Philipp Lang (aipamen huts) // Plazan jendaurrean hildakoak //

12. Argitxo iraungia

Philipp Lang // Mordechai Meisl // Mendel (Meislen zerbitzaria) // Mordechai Meislen urtxakurra // Meislen emazte zendua (aipamen huts) // Rudolf II.a (aipamen huts) // Loew errabino handia (aipamen huts) // Schmaje Nosse harakina // Cervenka (gorteko bigarren gelaria) // Brouza bufoia // Anaia Matias (aipamen huts, beti bezala) // Esther (Meislen emaztea, aipamen huts) //

13. Asael aingerua

Errabino handia // Asael aingerua // Neskatxa judua (= Esther = Meislen emaztea, aipamen huts) //

14. Epilogo

Ikasle gaztea // Jakob Meisl (medikuntza-ikaslea eta ikasle gaztearen irakasle pribatua) // Mordechai Meisl (aipamen huts) // Mordechai Meislen testamentua // Phillip Lang (aipamen huts) // ...